



ERRI Pape Ra

2018ko MAIATZA • 47. zenbakia

'Euskara, gure LURRA' dela nabarmenduko du aurten Udalerri Euskaldunen Eguna

Maiatzaren 26an izango da festa eta aldarrikapena uztartuko dituen eguna, Diman, hainbat eragilek elkarlanean antolatu duten egitarau oparoarekin. Egun horretan izango da UEMAREN batzar nagusia ere, eta Arantzazu eta Bakio batuko dira mankomunitatera. **2-3 ORR.**



UEMA eta PuntuEUS, elkarlanean

INTERNETEN HERRIZ HERRI ERAGITEKO BITARTEKOAK
UEMAKO KIDE DIREN HERRIETAKO WEBGUNEAK
ETA DOMEINUAK AZTERTUKO DITUZTE,
HORIETAN EUSKARA SUSTATU AHAL IZATEKO. **4 ORR.**

SALTO! gazte udalekuak, uztailean

LEHEN ALDIZ ANTOLATU DITU UEMAK
GAZTEAK EUSKARAREN INGURUAN KONTZIENTZIATZEA
DA ASMOA, AKTIBATU ETA INERTZIATIK
KONTZIENTZIARAKO SALTOA EMAN DEZATEN. **5 ORR.**



UDALERRI EUSKALDUNEN EGUNA

UDALERRI EUSKALDUNEN EGUNA DIMAN IZANGO DA AURTEN, MAIATZAREN 26AN, 'EUSKARA, GURE LURRA' LELOPEAN. HAINBAT UDAL ETA ERAGILE ARITU DIRA ANTOLAKUNTZAN, ELKARLANEAN

BI URTETIK BEHIN IZATEN DA UDALERRI EUSKALDUNEN EGUNA, UDALERRI EUSKALDUNEK EGINDAKO LANA FESTA GIROAN IKUSARAZTEKO ETA AURRERA BEGIRA DITUZTEN ERRONKAK NABARMENTZeko. UEMAKO KIDE DIREN UDALERRIEK EZ EZIK, GAINERAKO UDALERRI EUSKALDUNEK ERE HARTZEN DUTE PARTE. AURTEN, DIMAKO UDALA ETA UEMA ELKARLANEAN HASI ZIREN EGUNA ANTOLATZEN, ETA BEREHALA ELKARTU ZITZAIZKIEN DIMAKO HAINBAT ELKARTE, ETA BAITA ARRATIAKO UDAL GEHIAGO ERE. GUZTIEN ARTEAN, EGITARRUA OPAROA OSATU DUTE.

Azken hilabeteotan, UEMAK eta Dimako Udalak egindako deialdiari gogotsu erantzunez, Dimako hainbat eragile burubelarri aritu dira Udalerrri Euskaldunen Eguna antolatzeko bileretan. Besteak beste, Abizarie euskara elkarte, Dimesten, Zamakola elkarte, Andraizea, Dimetale-roak, Bertso Eskola edota Dimako Eskolako Guraso Elkarte.

Guztien artean, egun osoako egitarau oparoa osatu dute maiatzaren 26rako, festa, hausnarketa eta aldarrikapena uztartzeko ekitaldiekin. Gainera, eguna girotzen hasteko, bezperan, udalerrri euskaldunetako gazteen topaketan parte hartu zuten gazteei ere harrera egingo zaie Dimako udaletxean. Izan ere, topaketa haietan parte hartu zuten gazteek protagonismo berezia izango dute asteburuan zehar, beraien herrietako esperientziak partekatzeko ekimenekin, eta gazteentzat berariaz prestatutako mintegiarekin.

EKITALDI INSTITUZIONALA ETA UEMAREN BATZAR NAGUSIA ERE IZANGO DIRA

Euskararen arnaguneak sendotzeko eta herritarren kontzientzian eragiteko, instituzioen, eragileen eta herritarren



Udalerrri Euskaldunen Eguna Leitizan izan zen azken aldiz, 2016an. Batetik eta bestetik heldutako ehunka lagun elkartu zen egun osoan zehar, jaia eta aldarrikapena uztartzuz. Eguerdian, ekitaldi instituzionala ere izan zen (goiko argazkian).

arteko elkarlana bultzatzea izan ohi da Udalerrri Euskaldunen Egunaren asmoetako bat, hasieratik. Festa giroko ekitaldiez gain, beraz, izaten da ekitaldi instituzionalik ere.

Goizean, esaterako, udal ordezkariak UEMAREN batzar nagusia egingo dute Dimako eskolan, eta eguerdian, berriz, ekitaldi insituzionala izango da herriko plazan.

Batzar nagusian, azken hilabeteotan UEMAN sartzeko eskaera egin duten udal berriak onartzea espero da: Arantzazu eta Bakio. Eguerdiko ekitaldi

instituzionalean, berriz, udalerrri euskaldunek duten garrantzia nabarmenduko dute, eta baita euskararen normalizazioari egiten dioten ekarpena ere. Erakunde publikoetako, euskalgintzako zein beste hainbat alorretako ordezkariak ere izango da ekitaldian.

Festa eta aldarrikapena uztartzuz, ondo pasatzeko eguna izan ohi da Udalerrri Euskaldunen Eguna, baina lanerako eta hausnarketarako tarte ere izaten da egunean zehar. Goizean, zehazki, hainbat herritako esperientziak konpartitzeko aukera izango da, 'udalerrri euskaldunak eta euskalgintza' izeneko mintegian.



ima, maiatzak 26

EGITARAU

Udalerrri Euskaldunen Eguna egun bakarrekoa izan ohi den arren, Dimako Udalak eta herriko eragileek bezperarako ere zenbait ekitaldi antolatatu dute aurten. Besteak beste, iaz Salto Gazte Topaketetan parte hartu zuten udalerrri euskaldunetako gazteei harrera egingo diete Dimako udaletxean, asteburua Arratiako gazteekin igaro dezaten, euskaraz aritzeko konpromisoa zabalduz.

MAIATZAK 25, OSTIRALA:

19:00. HARRERA, DIMAKO UDALETXEAN, UDALERRI EUSKALDUNETAKO TOPAKETETAKO GAZTEEI.
20:00. PILOTA DESAFIOA.
22:00. KONZERTUA: ZAZKEL.
23:30. EUSKAL KARAOKEA, DIMAKO TABERNETAN.

MAIATZAK 26, LARUNBATA:

10:00. UEMAREN BATZAR NAGUSIA.
10:15. MINTEGIA: UDALERRI EUSKALDUNAK ETA EUSKALGINTZA.
11:00. MINTEGIA: GAZTEAK ETA EUSKARA, INERTZIATIK KONTZIENTZIARA.
11:00. HAURENTZAKO JOLASAK.
12:00. KALEJIRA, BURHANDIEKIN, TXOTXONGILOEKIN, JENTILTXU ETA JENTILIREKIN.
12:30. EKITALDI NAGUSIA.
13:15. KANTUJIRA.
14:45. BERTSO BAZKARIA, UNAI ITURRIAGAREKIN ETA JON MAIAREKIN.
18:30. HERRI KIROLAK.
20:00. AREATZAKO BATUKADA, HERRIKO KALEETAN ZENAR.
22:00. KONZERTUA: EGURRA TA KITTO.
23:00. ERROMERIA: EZTEN GIRO.

OHARRAK:

- Ekitaldi nagusiak Dimako plazan izango dira.
- Bertso bazkarirako txartelak aldeztuak dira, zenbat heldu (10 euro) eta zenbat haur (8 euro) zehaztuz, UEMAREN 943 816699 telefonora deituta edo 666 205 307 zenbakira whatsapp bidez idatzita. Egunean bertan ezingo da txartelak eskuratu. Txartelak eskatzeko epea: maiatzak 23.

ARANTZAZU ETA BAKIO ERE UEMARA BATUKO DIRA MAIATZAREN 26AN

Arantzazuko eta Bakioko udalak UEMAKo kide izatea erabaki dute, hurrenez hurren martxoaren 13an eta apirilaren 26an egindako udal osoko bilkuretan.

UEMAk Diman egingo duen batzar nagusian aztertuko ditu bi herrien

eskaerak, eta behin batzar nagusiak Arantzazu eta Bakio UEMAKide gisa onartu ostean, 87 herrik osatuko dute Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea. Guztien artean, 250.000 biztanleko lurguneko euskalduna osatzen dute.



HERRIA: ARANTZAZU
HERRIALDEA: Bizkaia (ARRATIA-NERBIOI)
BIZTANLEAK: 394
EUSKALDUNAK (INDIZEA): %76

Arantzazu udalerrri euskalduna da, baina euskararen ezagutzaren

eta erabileraren arteko aldeak kezka sortu du azkenaldian udal arduradunengan. Izan ere, euskararen erabilerak behera egin du azken datuen arabera. Egoera iraulari nahian, euskararen aldeko hizkuntza politika aurrerakoia egiteko asmoz erabaki du Arantzazuko Udalak UEMARA sartzea.

Nekane Zuazo euskara zinegotziaren hitzetan, "herri euskalduna da Arantzazu, baina azken urteotan nabaritu dugu beheranzko joera erabileran. Euskarari eusteko eta hizkuntza ohi-turak aldatzeko sentsibilizazio lana areagotzea dagokigu, eta UEMAREN esperientzia eta laguntza ezin hobeto etorriko zaigu horretarako".



HERRIA: BAKIO
HERRIALDEA: Bizkaia (URIBE ESKUALDEA)
BIZTANLEAK: 2.604
EUSKALDUNAK (INDIZEA): %73,2

Apirilaren 26an egindako udal osoko bilkuran erabaki zuen Bakioko Udalak UEMAN sartzeko eskaera egitea, aho

batez, EH Bilduko 4 zinegotzien, EA-Jren 5 zinegotzien eta Bakio Bai-ko 2 zinegotzien aldeko botoekin.

Bizkaia iparraldean dagoen kostaldeko herria da Bakio, eta bertako alkateorde eta euskara zinegotzi Isabel Barturen-en hitzetan, "beharrak eraginda" hartu dute UEMARA sartzeko erabakia,

Izan ere, alkateordeak nabarmendu duenez, "modu masiboan eraiki izan da Bakion, eta hirigintza arazoa bihurtu da herriarentzat. Kanpoko jende asko etorri da Bakiora, horrek desoreka sortu du herrian, eta eragin handia izan du hizkuntzan". UEMARA sartzeko erabakiarekin, egoera iraultzeko eta euskararen aldeko hizkuntza politika aurrerakoia egiteko asmoa agertu dute.

Udalekuak antolatu ditu lehen aldiz UEMAk, Gazteak euskararen inguruan kontzientziatzeko

UDALERRI EUSKALDUNETAKO gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzen, kontzientziatzen eta eragile aktibo bihurtzeko asmoz antolatu ditu udaleku hauek UEMAk, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Uztailaren 10etik 17ra izango da egonaldia, Zestoako Sastarrain aterpetxean. UEMaren hezkuntza proiektuaren baitako ekimena da.

Herritarren kontzientziazioa eta sentsibilizazioa da UEMaren ildo nagusietako bat azken urteotan. Horren baitan, euskararen arnasguneei buruzko hezkuntza proiektua sortu zuen UEMak duela bi urte, eta azken ikasturteetan UEMako herrietako ikastetxe guztietan aritu dira lanean UEMako teknikariak, Haur Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikasleekin. Ikasleen artean hizkuntza ekologiararen diskurtsoa zabaltzea eta arnasguneen garrantzia nabarmentzea da proiektuaren helburua, gazteei euskararen normalizazio prozesuan duten garrantzia ikusarazteaz gain.

Proiektua bere osotasunean garatzeko, eta hezkuntza arautuaren mugak gainditu nahian, Salto! Gazte Topaketak antolatu zituen iaz lehen aldiz UEMak. 15 eta 18 urte arteko gazteak bildu ziren topaketa haietan, eta hiru egunetan hainbat ekimen eta ekitalditan hartu zuten parte. Egun haietan landutako eduki guztia modu lasaiagoan lantzeko eta gazte gehiagoren-



Udalerrri Euskaldunetako Gazteen Udalekuak iragartzeko UEMako kide diren herrietan zabaldutako kartela.

gana heltzeko, asteburu bateko egonaldia beharrezko asteko udalekuak prestatzea erabaki du orain UEMak.

Euskaraz bizi diren gazteek inertziaz kontzientziarako salto ematea eta horre-

kin efektu biderkatzailea sortzea da helburua. Aisialdiarekin eta euskal kulturarekin lotutako egitarau erakargarriekin, gazteak gaiaren inguruan sentsibilizatu eta eragile aktibo bihurtu daitezke.

EUSKO JAURLARITZAK BERARIAZ LAGUNDU DITU UDALEKUAK, "OSO GARRANTZITSUAK" DIRELA IRITZITA

Gazteen artean euskararen erabilera eta kontzientziazioan eragitea ezinbestekoa dela iritzita, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordeak berariaz lagundu ditu udaleku hauek. Udalekuak aurkezterako, Miren Dobaran sailburuordeak udalerrri euskaldunetako euskararen normalizazio prozesuan duten garrantzia nabarmendu zuen. Ildo horretan UEMak egindako lana eta soziolinguistika edukiak gazteen artean lantzeko beharra aipatu zuen, eta hor kokatu zuen Eusko Jaurlaritzaren eta UEMaren arteko lankidetzak. Horren baitan, udaleku hauek duten garrantzia



Miren Dobaran, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordea (erdian), udalekuak aurkezteko prentsaurreko agerraldian, UEMako kideekin batera.

ere nabarmendu zuen, batez ere gazteen kontzientziazioan eragiteko, gero hizkuntza ohituretan ere eragin nahian. "Ezinbestekoa da erabilera trinkotzea. Udalerrri euskaldunetako eta arnasguneek

berezibiko garrantzia dute horretan. Eta zer esanik ez bertan bizi diren gazteek. Horiek eragile aktibo bihurtzea oso garrantzitsua da erabilerari eusteko, eta hori da udaleku hauekin lortu nahi dena."



USKARA INTERNETEN

UEMAk eta PuntuEUS Fundazioak ELKARLANERAKO HITZARMENA SINATU DUTE, HERRIZ HERRI INTERNETEN ERAGITEKO EKIMEN AITZINDARIAK IRAGARRIZ

Internet, webguneak eta sare bideak gure herrietako plazarik garrantzitsuenetakoak bihurtu direnez, plaza horietan eragiteko eta euskara sustatzeko ekimenak iragarri dituzte UEMAk eta PuntuEUS Fundazioak. Zehazki, UEMAko kide diren herrietako webgune eta domeinu guztien informazioa helaraziko dio PuntuEUSek UEMARI. Hitzarmenak, beraz, 8.000 webguneri eragiten die. Informazio horrekin, UEMAko kide diren herrietako ehunka erakunde, elkarte, enpresa eta norbanakotan eragiteko bitartekoak eta konpromisoak aurkeztu dituzte bi aldeek.

UEMAko kide diren herrietako webguneei buruzko informazioa aitzindaria da udalentsat. Izan ere, herri bakoitzean zenbat webgune dauden erregistratuta jakingo dute hemendik aurrera udalek, eta baita webgune horien domeinuak zein diren ere (.eus, .com, .net, .info, .es eta abar). Era berean, webgune horietan euskarak zenbateko presentzia duen ere ikusgai izango dute udalek, herrian erregistratuta dauden webguneak norbanakoenak, erakundeenak, enpresenak, herri eragile eta elkartenak, zerbitzu sektorekoak edo zer-nolako esparrutakoak diren jakitearekin batera.

Honek guztiak, herri gehienetan orain arte landu gabe zegoen esparrurako atek zabaltzen dizkie UEMARI eta udaletako euskara zerbitzuei, webguneak herrien erakusleho garrantzitsuak baitira, eta horietan euskara sustatzea eta mundura euskaraz agertzea giltzarria baita udalerrri euskaldunen izaerari eta nortasunari eusteko, oro har kalean euskaraz bizi diren herriak euskaraz ager daitezen sarean ere.




PuntuEUS Fundazioko zuzendari Josu Waliñok eta UEMAko lehendakari Josu Labakak hitzarmenaren nondik norakoak hedabideen aurrean aurkeztu zituzten, apirilaren 19an Donostian egindako agerraldian.

UEMAk udal bakoitzari helaraziko dio udalerriri dagokion azterketa. Lan-eta egiteko PuntuEUSek berariaz prestatu duen tresnarako sarbidea udalerrri bakoitzeko euskara teknikariek izango dute, horren arabera Interneten euskara sustatzeko ekimenak abiarazi ahal izateko.

Euskara areagotzea eta .EUS domeinua sustatzea

UEMAko kide diren udalerrietan, .EUS domeinuaren erabilera sustatzeko ahalgina egingo da herriko elkarte, enpresa eta, oro har, webgune bat duten eragileetan. Webgune horietan eta herriko gainerakoetan edukia euskaraz argitaratzea ere sustatuko da. Izan ere, hitzarmen honen helburua euskarazko edukien eskaintzan eta eskarian eragitea da, interneten euskara areagotzeko.

Udalaren menpeko egoitzetan eta herriko eskoletan nabigatzaileak euskaraz jartzeko neurriak hartzea ere aurreikusten da, ingurune digitalean euskararen presentzia indartzeko.



LEHEN HITZA EUSKARAZ KANPAINA LEHENHITZA.EUS

Internet erabiltzean euskara hautatzea ere garrantzitsua da, besteak beste erraldoi digitalek euskarazko publizitatea onar dezaten. Horretarako, PuntuEUS Fundazioak iaz abiatutako *Interneten ere lehen hitza euskaraz* kanpaina babestuko eta zabalduko du UEMAk bere herrietan.

Datuen arabera herritarren % 2-3k besterik ez du euskaraz nabigatzen, eta kopurua beherantz doa. Batez ere, gero eta gehiago mugikorren bidez nabigatzen dugulako Interneten, eta jendeak ez duelako ohiturarik mugikorra euskaraz konfiguratzeko.

TURISTEI EUSKARA ZER DEN AZALTZEKO BISITA GIDATUA



Kike Amonarriz soziolinguistak idatzi du bisita gidatuaren gidoia, Zumaiaiko Udaleko Euskara eta Turismo zerbitzuaren laguntzarekin. Argazkia: Baleike (baleike.eus).

'Enigma Bizia' izeneko bisita gidatua eskaintzen hasi dira Zumaian, bertako udaleko euskara eta turismo sailek antolatuta. Euskara herriko ondare garrantzitsua dela iritzita, euskara turismo eskaintzan nabarmendu dute, eta herrira heltzen diren turistei euskararen eta euskal kulturaren inguruko azalpenak emango dizkiete bisita gidatuan. UEMAk euskara eta turismoa uztartu nahian abiarazitako hausnarketarekin bat egiten duen ekimen aitzindaria da Zumaiaiko Udalarena.

Turistentzat eta bisitariarentzat prestatutako euskarrietan, orain arte ez da bereziki nabarmendu euskara, baina euskara gure herrietako ondare garrantzitsuen delakoan, egoera iraultzeko lanean ari dira UEMA eta hainbat udal. Euskararen inguruko turismo eskaintza beste modu bateko esperientziak sortzeko baliagarria izango delakoan, ari dira zenbait ekimen mamitzen. Zumaian, esaterako, *Euskararen enigma* bisita gidatua sortu dute, turistei euskararen jatorriaz, euskalkiez, historiaz, herriko toponimiaz edota euskal kulturaz azalpenak emateko. Beste hainbat herri ere ari dira lanean, antzeko ekimenak abiarazteko.

HIRIGINTZA PLANEK HERRIKO EUSKARAN IZANGO DUTEN ERAGINA NEURTU DUTE ERREZILEN ETA ALEGIAN

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak Herrian izango duen eragin linguistikoa neurtu dute Errezilgo eta Alegiako udalek, UEMArekin elkarlanean. Udalerrri euskaldunak berariaz zaintzeko beharra ikusita sortu zen Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa, eta lege izaera hartu zuen 2016an, EAEko Udal Legea onartu zenean. Harrezkero, hirigintza planek edo gainerako proiektuek hizkuntzan izango luketen eragina aztertu beharra dute Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako udalek. Egindako ebaluazioen ondorioetan, badaezpada neurri zuzentzaileak proposatu dituzte bi herrietan.



Errezilgo (argazkian) hirigintza planak herri osoan eragingo duela ondorioztatu dute, "euskararen ezagutzan jaitsiera aurreikusten baita HAPO bere osotasunean garatuz gero".

Alegiko eta Errezilgo hirigintza planek herriko euskararen izan dezaketen eraginaz kezkatuta, UEMArekin elkarlanean, eragin linguistikoa neurtu eta neurri zuzentzaileak proposatu dituzte bi udalek. UEMArekin eta udalen ordezkariak gain, Arritxu Zelaia hizkuntza aholkularia eta Inhar Agirrezabal arkitektoa ere aritu dira lan-taldeen artean. Hirigintza planek ekologia, genero eta gizarte ikuspegiak ere jasotzen dituzte, eta gizarte ikuspegiaren baitan aztertu dituzte planek kulturaren eta hizkuntzan izango duten eragina.

Lanpostu Publikoetan Euskara Bermatu Dadila Eskatu du UEMAK Nafarroako Parlamentuan

UEMAk agerraldia egin zuen apirilaren 25ean Nafarroako Parlamentuan, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean, Nafarroako Gobernua sustengatzen duten alderdiek eskatuta. Eremu Euskaldunetako Lanpostu Publikoetan euskaraz aritzeko gai diren langileak bermatu daitezela eskatu zuten UEMAREN izenean ETXARRI ARANAZKO alkate Eneka MAIZEK eta BERAKO zinegotzi AITOR ELEXPURUK. HELBURUA, HERRITARREK LANGILE PUBLIKOekin euskaraz aritzeko duten eskubidea bermatzea da. UEMAREN mezua eta JARRERA GORAIPATU ZITUEN Nafarroako GOBERNUAK.



Eneka Maiz eta Aitor Elexpuru UEMAKo zuzendaritza batzordeko kideak, apirilaren 25ean Nafarroako Parlamentuan egindako agerraldian.

UEMAko kideek gogoratu zuten, Nafarroako Parlamentuko batzordeetan azken urteotan egindako laugarren agerraldia izan zen apirilkoa, beti ere azalpenak emateko eta eskaerak egiteko. Oraingoan, bereziki, eremu euskaldunetako lanpostuetan eskakizun elebiduna ez duten lanpostuei eskakizun elebiduna jartzea eskatu zuten, eremu euskaldunetan berariaz bermatu dadin herritarrek langile publikoekin euskaraz aritzeko duten eskubidea. Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezzen gaur egun eragozpenak dituzten lanpostuen azterketa eginda, zerbitzu gehiago ere badiren arren, UEMAK lehentasunezkoztat jo ditu lau zerbitzuetako lanpostuak: osasun arlokoak, liburutegiak, Nafarroako Enplegu Zerbitzukoak eta mendizainak. Txosten mardula aurkeztu zien parlamentariei, udalerrri euskaldunetan euskara ofiziala izan arren herritarrek langile publikoekin euskaraz aritzeko zailtasun handiak dituztela erakutsiz. Nafarroako Gobernuak eskertu egin zuen “UEMAREN lana, tonua eta jarrera”, eta UEMAREN eskaerekin bat egin zuten Nafarroako Gobernua sustengatzen duten alderdiek ere.

Aurten ere, errenta aitortpena euskaraz



ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINA ABIAZARI DU AURTEN ERE UEMAK, BERTAKO KIDE DIREN UDALekin ETA BESTE ZENBAIT ERAKUNDE PUBLIKOekin ELKARLANEAN. ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO DEIAREKIN, ADMINISTRAZIOA EUSKALDUNTZEA ETA HERRITARRAK KONTZIENTZIATZEA BULTZATU NAHI DA.

Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi du aurten ere UEMAK, udalekin elkarlanean. Urtez urte, honelako kanpainen eraginez, gero eta gehiago dira errenta aitortpena euskaraz egiteko hautua egiten duten herritarrak, administrazioa euskalduntzeko ekarpena eginez. Era berean, errenta euskaraz egiteko deialdiarekin, herritarrak kontzientziatzea ere lortu nahi da, administrazioarekin erdaraz jarduteko ohitura iraultzeko. Izan ere, zergadunek hainbat bide dituzte errenta euskaraz egiteko, eta oso modu errazean gainera.

Ohi bezala, errenta aitortpena egin daitekeen lekuetan jartzeko euskarriak prestatu ditu UEMAK, udalekin elkarlanean kanpaina ahalik eta herritar gehienengana iritsi dadin.

ORO HAR, EUSKALDUNEN BEHERANZKO JOERA ETEN EGIN DA UDALERRI EUSKALDUNETAN, ERDILDUNEK ERE GORA EGIN ARREN

HERRIZ HERRIKO 2016KO EUSKARA DATUAK PLAZARATU DITU EUSTATEK, ETA TXANPONAREN BI ALDEAK IKUS DAITEZKE DATUETAN: EUSKALDUNEN PORTZENTAJEA HANDITUZ DOA ORO HAR, BAINA ETXKO ERABILERAK SORTZEN DU KEZKA, BAITA HAZTEN DOAN ERDILDUNEN KOPURUAK ERE.

Udalerrri euskaldun askok biztanle mugimendu handiak izan dituzte. 1981eko datuak eta 2016koak alderatzea nahikoa da: udalerrri euskaldunetan 1981ean baino %12 biztanle gehiago dira, oro har. Gainerako herrietan, %0,3 da igoera. Horrek eragina izan du herrietako egoera soziolinguistikoan, baina azken datuek oro har atzerakada eta galera eteten hasi dela erakusten dute.

UEMAko zuhurtziaz hartu ditu datuak, baina lehen inpresioa baikorra dela adierazi du Josu Labaka lehendakariak, beti ere udalerrri euskaldunen hauskortasuna nabarmenduz, eta kontuan hartu beharrekoak faktore asko direla gogoratuz: krisi ekonomikoak etxegintzan eta immigrazioan izan duen eragina, lurralde antolaketa, kaleko arau sozialak, etxeko lehen hizkuntzaren aldagaia, eta abar. Herri txikienetan inbertitzeak duen garrantzia ere nabarmendu du.



UDALERRI EUSKALDUNEN BERRI, EGUNERO: URTE OSOAN ZEHAR,

